

# Pepe Reiren askatasuna eskatu dute 70 abokatuk eta elkartasun taldeko kideek

*Kazetaria espetxean edukitzeko inolako arrazoirik ez dagoela adierazi dute*

Erredakzioa / Donostia

Pepe Rei kazetariaren aldeko bi ekimen izan ziren atzo Entzutegi Nazionalan. Batetik, Gipuzkoako 70 abokatu eta prokuradorek idatzi bat aur-

keztu zuten, Reiren behin-behineko askatasuna eskatzen duena, epaiketaz izan artean hura espetxean izateko arrazoirik ez dagoela eta. Halaber, Adierazpen Askatasunaren eta Pepe Reiren Askatasunaren Aldeko

Nazioarteko Batzordeak ere (ehundik gora lagunek osatua) kazetariaren askapena eskatu zuen idatzi baten bidez. Egin-eko ikerketa taldeko beste kideek gaur deklaratu dute inputatu gisa Garzonaren aurrean.

PEPE REI kazetari presoaren aldeko ekimenak izan ziren atzo Madrilén. Batetik, 70 abokatuk eta prokuradorek Pepe Rei behin-behineko askatasuneari utz dezaten eskatzeko idatzi bat heldu zen Entzutegi Nazionalera. Askatasuna eskatzeko aurkeztu idatzian, hainbat argudio ematen dituzte abokatuak. Batetik, gogoratzen dute aurreko kasu batean, akusazio berarekin, askatasuna eman zitzaioela eta beraz irizpidea aldatzea ez dela ulertzekoa. Bestetik, edozein pertsonaren espetxeratzea edo kaleratzea erabakitzeak erabiltzen diren argudio berak erabiltzeko galdegin dute abokatuak, eta hala, kalean egon beharko lukeela ondorioztatu dute. «Reik sus-traitze sozial nabarmena du; familia ere hor du; dituen osasun arazoak kontuan hartu beharrekoak dira; adina ere bai; ez dago ihes arris-kurik, Reik duela zortzi hilabete baitzekien Garzon hura ikertzen ari zela; balizko delituarekin jarraitzea ere ezinezkoa da, zeren eta epaileak delitua haren lanaren bidez egiten zuela dio eta egun Rei langabezian dago; eta azkenik, ezinezkoa da frogak suntsitzea, froga guztiak Garzonaren esku baitaude», azaldu zuen Carmen Torres abokatuak, idatzian bildua laburbilduz.

Hala, abokatu eta prokura-



Pepe Reik (erdian) 1994ean izandako epaiketa dela eta ere elkartasun mezu ugari jaso zituen.

doreek jarrera aldatzeko eskatu diote Garzoni, eta Rei aske utz dezala.

Bestetik, atzo bertan Adierazpen Askatasunaren eta Pepe Reiren Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Batzordeak beste idatzi bat aurkeztu zuen Entzutegi Nazionalan Reiren askatasuna eskatzeko. Taldea ehundik gora abokatu, kazetari, idazle, artista eta abarrek osatzen dute. Idatzia aurkeztu ostean prentsaurrekoa eskaini zuten. Francisca Villalba abokatuak, Lolo Rico errealizadore-

ak eta Andres Soler idazleak eskaini zuten. Bertan Pepe Reik jasaten duen «jazarpena» salatu zuten. «Kazetari bat kriminalizatzen ari dira disidentea delako eta ez dagoelako sistemarekin ados», adierazi zuen Lolo Ricok. Francisca Villalba abokatuak errugabetasun presuntzioa ez dela errespetatzen salatu zuen, eta «komunikabideek lankide baten aurka egin kriminalizazioa» gaitzetsi zuen. «Kazetari batek, bere lana betetz, boterearen hainbat irregular-

tasun salatu ditu, hori egiteagatik haren kontra jo dute, eta hori benetan larria da», adierazi zuen Villalbak.

## Ikerketa taldekoak Garzonaren aurrean

Egin egunkariko ikerketa taldean aritutako sei kidek gaur deklaratu beharko dute Baltasar Garzon epailearen aurrean inputatu gisa: Dabi Mendizabal, Txema Garcia, Maite Madoz, Fernando Alonso, Amaia Eraunzetamurgil eta Ahoztar Zelaieta dira.

## Txandakako barauldia hasi dute Frantziako euskal presoek

■ Kartzelako nortasun agiria hautsi eta Justizia ministroari bidali diote

Erredakzioa / Baiona

EUSKAL preso politikoek Euskal Herriratuak izateko azken bi urteetan egiten ari diren borrokaldian urrats berri bat egin dutela jakinarazi du Gureak senide eta lagunen elkar-teak. Frantziako espetxeetan diren presoek ziegeta-tik ateratzeari uko egin diote urtarillaren 16az geroztik, txandaka, eta martxoaren 15etik bi ekimen berri abiatu dituzte.

Batetik, 48 orduko txandakako barauldia hasi dute. Halaber, ekintza bateratuan, egunero kartzelan erabili behar izaten dituzten presondegiko nortasun agiriak hautsi eta Justizia Ministeriora bidali dituzte, haien aldarrikapenak biltzen dituen gutunarekin batera.

## Presoen aldeko manifestazioa egingo da etzi Gasteizen, alderdi eta sindikatuek deituta

Erredakzioa / Gasteiz

MANIFESTAZIO isilera deitu dute Gasteizen EAJ, HB, EA eta Zutik alderdiek; ELA, LAB, ESK, EILAS eta Sintraraba sindikatuek; eta Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Elkarri, Hiru, Gazte Ekimena eta Herri Ekimena elkarre eta taldeek. Etzi arratsaldeko 18:30etan egingo da, Bilbo plazatik abiatuta.

Bultzatzaileek informatu dutenez, presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikatuko da, eta gainera, aske utz ditzatela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten Arabako lau presoak (Jose Manuel Gimón, Saturnino Lopez Domaika, Xabier Izaga eta Rikardo Izaga). Halaber, Andueza HBko mahakidea askatzeko eskatuko da, gaixotasun larria duela eta. Madinabeitia ekimenaren bozeramaileak «presoak eta senideak txanpon-truke gisa ez erabiltzeko» eskatu zuen.

## Tolosara Plataformak hausnarketa eguna deitu du etziko

■ Herriko alderdi, sindikatu, agente sozial eta gazte taldeak bilduko dira presoen gaia eztabaidatzeko

Erredakzioa / Donostia

TOLOSARA Plataformak hausnarketa egun irekia antolatu du etziko. Helburua, herriko alderdi politikoak, sindikatuak, agente sozialak eta gazte erakundeak bildu, eta guztien artean presoen gaiaren inguruan eztabaidatu eta hainbat ekimen bideratzea da. Udaletxean egingo dute bilera, goize-

ko 10:00etan hasita, eta Tolosara Plataformak honakoak deitu ditu: EA, EAJ, EHB, EH, IU-EB, PP, PSE-EE, ELA, LAB, STEE, CCOO, EHNE, ENBA, AAB, Elkarri, BAK, Senideak, Gazte Abertzaleak, EGI, Jarrai eta Egi-zan.

Plataformak atzo emandako prentsaurrekoan jakinarazi zuenez, «topaketa horretan taldeek aurkeztuko

dituzten proposamenak eta iradokizunak eztabaidatuko dira, eta helburua adostasun gune batera heltzea izango da, Tolosara etapa berri bat has dadin».

Izan ere, Tolosara Plataforma duela urte eta erdi sortu zen arren, taldeko kideek ez dute uste tarte horretan sakabanaketa amaituko dela pentsatzeko seinalerik izan denik: «Denbora honetan

ikusi dugu ez dela aldaketarik izan dispartzioaren amaiera gertu dagoela adierazi digunik». Tolosara Plataformako kideek azaldu zuten, bestalde, eurek dagoeneko egin dute horren inguruko hausnarketa eta atera dituzten ondorioak etzi aurkeztuko dituzte gainontzeko taldeen aurrean, guztien artean eztabaidatu ahal izateko.